

Zer aukera ematen ditu euskarak elkarrenganatzeko? Nola aurrera egin?

#Zubideiak Gune Irekia

UPV/EHUko Bizkaiko Campusean (Leioa)
2016ko maiatzaren 7an, 09:30.18:00
(Gaztelera, frantsesez eta euskaraz)

Zenbat gara? Lau, bat, hiru, bost, zazpi? Zenbat hizkuntza? Zer egiten dugu?

Zer da euskara zuretzat? Zertarako balio dizu? Elkarrengana hurbiltzen gaitu euskarak ala elkarrengandik urruntzen? Zergatik ote? Nola gainditu ditzakegu euskara zubian ditugun oztupoak?

Zelako abantailak ditu euskarak, txiki, arin, eta irristakor izateagatik? Zer eta nola egin dezakegu aniztasunetik eta bazterretatik euskararen erabilpena handitzeko?

Zelako harremana izan behar dute euskarak eta Euskal Herrian bizi diren espainolak, frantsesak eta bestelako hamaika hizkuntzek? Zer egin dezakegu elkarrekin, euskara, bizikidetzeta eta aniztasuna oinarritzat hartuta, bestelako gizarte eredu baterantz urratsak egiteko? Kultura aniztasuna bistaratu eta eredu hegemonikoa arraildu nahi dugu. Eta arrail horietan hamaika lore eta landare erein.

Hitz egiten al dugu inoiz guretatik urruneko kezkak iritziak eta oztupoak dituztenekin? Horiexekin ere elkartu gura dugu oraingoan, bada, eta iritziak elkar-trukatu patxadaz, luze eta zabal. Zuk ere bai? Erdu Zubideiak Gune Irekira, egunbeteko elkarriketa-gune autoeratu, sormentsu eta aberatsera!

NON? Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan (Leioa)

NOIZ? Maiatzaren 7an (9:30-18:00). Edozein unetan sartu eta irteteko aukera.

IZENA EMATEKO: [agiritxo hau bete](#), mesedez, (ahal baduzu, maiatzaren 2rako)

MATRIKULA (katerina barne): 10 €

Garestiegi zaizula? Jarri harremanetan, lasai, eta konponduko dugu.

ORDAINKERA: eskuz, tokian bertan

UMEEKIN ZATOZ? Primeran! Gozo-gozo zainduko ditugu!

HIZKUNTZAK: Gaztelera, frantsesa eta euskara, bizikidetzeta ariketa praktikoan.

Nolakoa izango da batzarra? Gune Irekiko metodoaz lan egingo dugu: oso lan-modu emankorra, parte hartzea eta talde-sormena errazten dituen eta energia gorakada eta ekintza ugari dakarrena.

- . **Nahi ditugun gaiak** proposatu ahalgo ditugu jardunaldiaren hasieran
- . Gai bakoitzari heltzeko **90 minutuko tarteak** izango dira
- . Elkarriketen inguruko **txostena** beteko eta bidaliko dugu guztion artean tokian eta egunean bertan.

ZUBIDEIAK. Euskara eta zu. Zubiak, bideak eta ideiak. Zuganantzako bideak. Euskara zubia sendotzeko, aberasteko eta betetzeko bideak, ideiak, bidaiak, bidaideak... Erdu Zubideiak Gune Irekira maiatzaren 7an!

ZUBIDEIAK, Talde Ergilea: Unesco Etxea, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Garabide, Euskaltzaleen Topagunea, Kontseilua, AEK, Seaska, Emigrados sin fronteras, Elhuyar, Emun, Banaiz Bagara, Joxemi Zumalabe fundazioa, Aztiker, UEMA, Soziolinguistika Klusterra, Hobest Consultores, Kutxa Fundazioa, Kutxa Ekogunea, Laboral Kutxa, Eusko Ikaskuntza, UPV/EHU, Mintzanet, Bergarako Udala, Ekin Emakumeak elkarte, Gune Irekiaren Lagunak.



INFO+ zubideiak@gmail.com 674345756 #zubideiak